



ZEREN TRUKE?

Aspaldian ez bezala azken asteotan, Hezkuntza Komunitatean, Kalitatearen inguruko eztabaida sortu dugu. Betiko diru aldarrikapenez haratago, Irakaskuntzako langileok kalitatean hobekuntza suposatzen duten *lan-baldintzen inguruko aldarrikapenak* gure egin ditugu eta hauen alde *mobilizatzeko hautua* egin dugu Irakaskuntzako Sindikatu guztien babesaz.

Gure Sindikatuak eskolatan egindako asanbladetan, irakasleekin hitz eginda, oso garbi ikusi dugu langileen artean dagoen haserrea. Administrazioak, Nafarroako Hezkuntza Sistemari ematen diren porroten ardura osoa irakasleentz bazar gainean jartzen du, nahiz eta Departamentuaren aldetik urte urte baliabideak murriztu (giza baliabideak, materiala, eraikinak...). Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko egiten duen gauza bakarra Proiektu erraldoiak inposatzea da (burokrazian oinarrituak, parte hartzea ukatzen dutenak, oinarri pedagogikorik gabekoak, ikasleak estatistika hutsean bihurtuz,...). Proiektu hauek irakasleentzat lan zama handia eta estresa suposatzen dute. Honetaz gain Departamentuak murriztapen gehiago proposatzen ditu datozen urteetarako, hala nola ratioen igoera, bikoizketaren desagerpena, Ordezkoen araudiaren inposaketa,...

Honen aurrean, Sindikatuen erabakia neurri hauei aurre egitea izan da; gure eskubide sindikalak diren asanblada eta grebarako deialdia eginez. Departamentuaren erantzuna ordea, egoeraren beldur, debekua izan da. Honek guztiak, agirian uzten du departamentuko zuzendari nagusia den Fermin Villanuevaren **JAUNTOKERIA**.

Egoera hau izaki, maiatzaren 26an buruturiko bilkuran, argi gelditu zen sindikatu guztien jarrera: Mahaian esertzeko eta *negoziaketetan jarraitzeko; asanblada egiteko debekua erretiratu* beharra hitzartu genuen.

Astelehen goizean berriz, CCOOek hitzartutakoari buelta eman zion, hau da, *nahikoa zitzaien jada aurreko paktuko baldintzak mantentzea eta Ordezkoen Zerrenden Kudeaketa Araudian aldaketa bat* (jardunaldi erdiari uko eginda zerrendetan mantentzeko aukera) *ematea mobilizazio deialdia bertan bera uzteko* hitzartutakoari muzin eginez. Proposamen honen harira, bozketa burutu zen eta honako jarrerak azaldu ziren:

Mobilizazioa *bertan bera* uztearen alde: AFAPNA, CCOO, CSIF eta UGT.
Mobilizazioekin *jarraitzearen* alde: LAB eta STEE-EILAS.
Abstentzioa: ELA.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

**Nafarroa**

Sindikatu batzuen aldetik lorpen gisara aurkeztu dena, guretzat antzerki huts bat besterik ez da izan. Mobilizazio deialdia Sindikatu guztiek hitzartutako zortzi punturen inguruan egin zen eta Hezkuntza Departamentuak ondoko puntu hauen inguruan ez inongo konpromisorik hartu:

- ↔ Hurrengo ituna garatzeko finantzaketa nahikoa. Irakaskuntza Publikoak behar dituen hobekuntzan aurrera pausuak ematen.
- ↔ Heziketako behar bereziak dituzten ikasleak sare ezberdinen artean era orekatu batean banatzeko neurriak txertatzea.
- ↔ Irakasleen lanaldia eta ordutegiaren baldintzak hobetzea. Koordinazioa, formazioa, tutoretzaren indartzea, eta familiekin harremana sendotzea sustatu daitezten.
- ↔ Kudeaketa partehartzailea oinarria duen Ikastetxeen autonomia erreala bultzatzea. Hau posiblea izatea bermatzen duten baliabide nahikoa izatea ezinbestekoa da.
- ↔ Ratioak gutxitzea eta aniztasunari erantzuteko baliabide berriak martxan jartzea.
- ↔ Familiek, libreki, hautatutako ereduan eta ikastetxean ikas postu izateko eskubidea bermatzen duen eskaintza nahikoa ziurtatzea.
- ↔ Zerrenden kudeaketa arautzen duen Foru Dekretua berrikustea kontratupeko langileen lan baldintzak duinak izan daitezten.

Ordezkoen Zerrenda Kudeaketarako Arautegian bada aldaketa bat, baina bada zer aldatu oraindik ordezkoen lan baldintzak duinak izan daitezten.

Honen guztiaren aurrean ez dugu ulertzen langileen ordezkariek diren sindikatuak nola ontzat eman dezaketen administrazioak eginiko proposamen *eskas* eta *iraingarri* hau. Zer eskaini die administrazioak beraiekin bakarka bildu direnean (Campoy eta Villanueva AFAPNA, CSIF, CCOO eta UGTekin)? Zeren beldur dira?

Argi eta ozen salatu nahi dugu "Sindikatu" hauek langileak erabili izana. Langileak urteetan zehar metatutako haserre eta egon ezina mobilizaziorako ilusio bihurtu denean, Sindikatu hauek horren erabilpena egin dute, lehenengo bide gurutzean beraien aldarrikapenak bertan bera utziaz.

Eskerrak beste behin AFAPNA, CSIF, CCOO eta UGT "Sindikatuak" langileen eskubide zein lan baldintza duinen defentsa nola egin hain zintzoki erakusteagatik. Eskerrik asko, langileak nola mobilizatu eta administrazioa nola estutu erakusteagatik. Eredu bat zarete guretzat mila esker!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>



¿ A CAMBIO DE QUE?

En las últimas semanas, como no ocurría desde hace tiempo, hemos dado ocasión a la Comunidad Educativa de debatir sobre la Calidad en la enseñanza. Más allá de la reivindicación de mejoras económicas, los y las trabajadoras de la Enseñanza Pública hemos hecho nuestras unas reivindicaciones sobre nuestras condiciones de trabajo que supondrían una notoria mejora en la calidad de la enseñanza y hemos apostado por una jornada de movilización en defensa de las mismas con el apoyo de todos los sindicatos de educación y de las asociaciones de padres y madres.

Durante las visitas que en representación de nuestro sindicato hemos realizado a los centros escolares, hemos apreciado claramente el enfado que existe entre el profesorado. La Administración pone toda la responsabilidad del fracaso del Sistema Educativo Navarro en el profesorado, a pesar de que año a año va reduciendo los recursos (recursos personales, materiales, edificios...) Lo único que hace por mejorar la calidad de la Enseñanza es imponer Proyectos majestuosos (basados en la burocracia, que niegan la participación. Sin base pedagógica, que tratan al alumnado como mera estadística..) Estos proyectos suponen un gran trabajo añadido y estrés para el profesorado. Además, el Departamento propone más reducciones para los próximos años, aumento de las ratios, desaparición de los desdobles, imposición del Reglamento de Gestión de listas...

Ante esta situación los Sindicatos deciden hacer frente a estas medidas; llamando a una jornada de huelga y asamblea, haciendo uso de nuestros derechos sindicales.

La respuesta del departamento a esta llamada, por temor a lo que esta jornada puede suponer, es la prohibición. Esta pone de manifiesto **EL CACIQUISMO** de su Director General Fermín Villanueva.

Siendo esa la situación, en la reunión celebrada el 26 de mayo, quedó claro el posicionamiento de todos los Sindicatos: Pactamos que para sentarnos en la Mesa y retomar la negociación debería ser retirada la prohibición de de realizar una asamblea.

Sin embargo el lunes por la mañana, CCOO, dio la vuelta a lo pactado, es decir, le parecía suficiente mantener las condiciones del Pacto anterior y un cambio en el reglamento de gestión de Listas (continuar en las listas en caso de rechazar una media jornada) para desconvocar la jornada de movilizaciones, despreciando lo anteriormente pactado. En torno a esta propuesta se hizo una votación, con el siguiente resultado:

A favor de desconvocar la movilización: AFAPNA, CCOO, CSIF y UGT.

A favor de seguir con la movilización: LAB y STEE-EILAS

<http://www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Arabán
Bueno Monreal, 10 Behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
irakaskuntzaaraba@
labsindikatua.org

Bizkaian
Rekalde zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
irakaskuntzabizkaia@
labsindikatua.org

Gipuzkoan
San Bladi,1,behea
20013 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 472 709
irakaskuntzagipuzkoa@
labsindikatua.org

Nafarroan
M.Zelaieta 75 2A atea
31014 Iruñea
Telf.: 948 382474
Faxa.: 948 221 276
irakaskuntzanafarroa@
labsindikatua.org

Iparraldean
13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@
labsindikatua.org



Abstención: ELA.

Lo que algunos Sindicatos han presentado como logro, para nosotros y nosotras no es sino un simple teatro. La convocatoria de movilización se hizo en base a ocho puntos pactados por todos los Sindicato y el Departamento de educación no ha tomado ningún compromiso en torno a estos puntos:

- Asegurar una financiación suficiente para el próximo pacto, avanzando en las mejoras que necesita la Enseñanza Pública.
- Incorporar medidas para un reparto equilibrado entre las redes y centros del alumnado con necesidades educativas específicas.
- Mejorar las condiciones de jornada y horario del profesorado, impulsando la coordinación e innovación educativa, y reforzar la acción tutorial y la colaboración con las familias.
- Promover una autonomía real de los centros, basada en la gestión participativa y con una garantía de recursos suficientes por parte de la Administración.
- Disminuir las ratios y poner en marcha nuevos recursos para la atención a la diversidad.
- Asegurar una oferta suficiente que permita escolarizar al alumnado en el lugar y modelo lingüístico elegido libremente por las familias.
- Revisar el Decreto Foral sobre gestión de listas para dignificar y equiparar las condiciones laborales del personal contratado

En lo que respecta al Reglamento de Gestión de Listas hay un cambio, pero hay mucho que cambiar todavía para que las condiciones laborales de las y los contratados sean dignas.

Ante todo esto no entendemos que sindicatos que representan a las y los trabajadores den por buena y suficiente esta respuesta pobre e insultante de la administración. ¿ Qué les ha ofrecido la administración en las reuniones que han mantenido por separado? (Campoy y Villanueva se han reunido con AFAPNA, CSIF, CCOO y UGT) ¿ A qué le tienen miedo?

Tenemos que denuncia fuerte y claramente la utilización que estos “Sindicatos” han hecho de los trabajadores y trabajadoras. Cuando el enfado y el malestar acumulado durante años se había convertido en ilusión y fuerza para movilizarse, estos Sindicatos la han utilizado, en el primer cruce de caminos han dejado las reivindicaciones de todo un colectivo dispuesto a pelear.

Gracias una vez mas a los “Sindicatos” AFAPNA, CSIF, CCOO y UGT por demostrarnos tan sinceramente como hacer la defensa de los derechos y condiciones de trabajo dignas de las y los trabajadores. Muchas gracias por enseñarnos como movilizar a las y los trabajadores y como apurar a la administración.